

1

Egun batean Jesusengana
dakarre perlesiduna,
ondo dakie Jesus benetan
dala gaixoen laguna.
Eta behingoan errukitu zan
Jesusen bihotz biguna
eta opatu eutsan arima
ta gorputzeko osasuna.

3

“Aitaren gauzak ezagutzeko
hori da bihotz gogorra!
Nik badodala eskubidea
ikusi daizuen, horra:
Zeuri dinotsut: Jagi ta zoaz!”
Harek bai salto bixkorra!
Gorputz-arimaz bizibarritan
gizaki gaixo lehorra.

5

Arimaz garbi, gorputzez sendo
gizakia osaturik;
munduan ez da sekula izan
horrelako medikurik.
Gaixo, apalei ez deutse Jaunak
inoiz ukatu eskurik,
harroak ez dau Jainkoagandik
ezer hartzeko lekurik.

2

“Sinistu eizu eta parkatzen
jatzuz zure pekatuak”.
Hango marmarra ta iskanbila
fariseu garbi santuak:
“Hau biraoa entzun doguna,
hori bakarrik Jainkuak;
dudarik gabe, gizon hau dago
itsututa deabruak”.

4

Hau ikusita, jende guztia
bihotza pozez beterik:
“Jainkoak Berak lagundu ezik,
hau ez dago egiterik”.
Fariseuak lotsagorritan
ez pozik ta ez bakerik;
ikusi nahi ez dauanak ez dau
ezer onik ikusterik!

6

Kamila baten gaixoa hartu
eta dakarre lagunak,
lagun zintzoei zenbat zor deutesen
betiko perlesidunak!
Zenbat mirari lortu daikezan
benetako maitasunak:
Jainkoa lagun, badau zeregin
gaixoekin fededunak.